

**GARDENTASUN
TXOSTENA
2023**

 **FARAPI** KOOP.

TXOSTEN HONETAN TOPATUKO DUZUNA:

Izaera

Proiektuak

Ezagutza

Kontuak

Hornitzaileak

Sareak

Erronkak

2019an, Farapiren lan-egitura hankaz gora jarri genuen eta, orduetik, **etengabeko eraldaketa prozesu batean gaude murgilduta**. Gerentzia eredu tradizionala ezabatu genuen eta lan-taldea antolatzen hasi ginen, lan-orduak murriztu genituen eta taldearen eta norbanakoen bizigarritasuna bermatzeko tresna eta mekanismoak sortzen hasi ginen.

2023. urtean **bizigarritasuna eta bideragarritasuna** uztartzeko erronkan murgilduta egon gara. Halaber, inguruan **eragiteko dugun gaitasuna arakatzen** ari garenez gero, geure kabuz sustatutako proiektuen aldeko apustuarekin jarraitu dugu.

Bost dimentsio kontuan hartuta ari gara gauzatzen eraldaketa hori: proiektua, taldea, pertsona, inguru naturala eta inguru soziala. 2023. urtearen azterketa hau, beraz, erantzunkidetasun sozialetik egiten dugu, gure pertsonatik, taldetik eta proiektutik harago bagarelako eta izan nahi dugulako.

Erabaki politikoa da zurekin gardentasunez partekatzea norekin egiten dugun lan, nondik jasotzen ditugun gure baliabide ekonomikoak eta zertan erabiltzen ditugun.

Txosten hau egin ahala, urteko ibilbidearen aitortza egiteko aukera ere izan dugu. Harro gaude 2023an egin dugun lanaz, nahiz eta oraindik hobetzeko marjina dugula jakin badakigun. Horrek indarra eman digu eredu bizigarriarekin jarraitzeko eta erronka berriei aurre egiteko.

Ongi etorri gure erraietara.



IZAERA

Enpresa ameslaria da Farapi. Sistema kapitalista patriarkal eta kolonialista baten baitan lan egiten dugun arren, etengabe ari gara eredu berriak ko-sortzeko saiakerak egiten.

Gure izaera zurruna eta aldakorra da aldi berean. Alde batetik, oinarri batzuk negoziatzeko direla uste dugu. Besteak beste, hierarkiarik gabe lan egiten dugu eta produktiboak ez diren lanei aitortza egiten diegu.

Bestetik, ingurura begiratzea gustuko dugu, gure erabakiak berrikusteko eta elkarren artean ikasten eta desikasten jarraitzeko.

Pixkanaka, sistema zapaltzaile eta bortitz honetan alternatibak sortzeko sareak ehuntzen ari gara elkarrekin. Horrenbeste lagun zarete lan nekazina egiten duzuenak utopia egia bilakatzen saiatzeko!

Eskerrik asko inspirazio izateagatik.

ALDAKETAK LAN-TALDEAN

Lan-taldean aldaketak izan genituen 2023. urtean. Gabrielak eta Haizeak eszedentziak hartu zituzten eta urrian Ines batu zitzaigun lan-taldera.

Bestalde, eszedentzia laburrak hartzeko aukera abian jarri genuen lehenengoz. Hori dela eta, beste taldekide batzuek oporraldiez haragoko atsedenaldirak gozatu zituzten.

Joan-etorriak egon badira ere, langile zenbakia mantendu genuen urte amaieran eta lan-taldean hamar izaten jarraitzen dugu: **Araitz, Gabriela, Ines, Irati, Leire, Maider, Maria, Nerea, Nicola eta Oihane**. Eguneroko lanean egon ez badira ere, **Bego, Haizea eta Junek farapitarrak** funtsezkoak izan dira Farapi sostengatzeko.

Proiektuak garatzeko ezinbestekoa ikusten dugu jakintza eta arlo ezberdinetatik datozen begiradak eta egiteko moduak baliatzea. Horregatik, Farapi osatzen dugunok diziplina anitzetatik gatoz: feminismoa, partaidetza, ekonomia sozial eraldatzailea, antropologia, psikologia, administrazioa, finantzak eta komunikazioa.






PROIEKTUAK

Urte oparoa izan da eta, osotara, **87 proiektutan egon gara murgilduta 2023an zehar.**


Farapin modu kontzientean erabakitzen dugu zein proiektutan parte hartu nahi dugun. Proposamenak baloratzeko tresna bat sortu dugu, eta horrek gure izaerarekin koherenteak diren irizpideen arabera erabakiak hartzeko aukera ematen digu. Proiektu batean sartu baino lehen, alderdi hauek aztertzen ditugu: bideragarritasuna, motibazioa, kontziliazioa, bizigarritasuna eta beste hainbat.

Gure proiektuak hiru lan-lerrotan sailkatzen ditugu: feminismoa, parte-hartzea eta ekonomia sozial eraldatzailea. Hala ere, gure eguneroko lanean etengabe gurutzatzen dira, batak bestetik edaten duelako.

Hona hemen 2023. urtean egindako proiektu kopurua, lan-lerrotan sailkatuta:



PROIEKTUAK LAN-LERROKA



Feminismoa

Zaintza:

Zegamako zahartzaroaren mapa-diagnostikoa, zaintzen ikuspegitik.

Gipuzkoako Foru Aldundiko politikak zaintza ikuspegitik baloratzeko tresna.

Bergarako Zaintza Ekintza Planaren edukia ikusarazteko komunikazio-euskarria.

Indarkeria matxista:

Zegaman indarkeriari aurre egiteko diptikoa.

Donostiako Ekialde Barrutian indarkeria matxistari aurre egiteko protokolo komunitarioa.

Jai Berdinzaleak:

Tolosako jaien berdintasun behatokiaren dinamizazioa.

Lezoko tabernariei formazioa indarkeria matxistari aurre egiteko.

Saiaz Mankomunitateko jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko prozesua.

Berdintasuna herrietan:

Oñatiko Emakumeen Etxea herritarrekin eta eragileekin eraikitze prozesu partehartzailea.

Anoetako berdintasun diagnostikoaren eraikuntza partehartzailea.

Antzuolan berdintasunerantz urratsak emateko prozesuan bidelaguntza.

Berdintasuna barne-antolaketan:

BIRA Produkzioak kooperatiba lantoki feminista bilakatzeko prozesua.

EREITENen berdintasun plana.

Farapik bultzatutako prozesuak:

Farapin begirada interseksionala txertatzeko barne-prozesua.

Amatasunek proiektu kooperatiboetan duten eragina aztertze prozesua eta gida, Artziak kooperatibarekin elkarlanean.

Kooperatibetan barne araudi feminista osatzeko gida.

Ekonomia sozial eraldatzailea

Lantokiak eraldatzeko tresnak:

Arremanitz kooperatiba.

BIRA Produkzioak kooperatiba.

Eihera kooperatiba.

Irule Abokatuak kooperatiba.

Harago kooperatiba.

Barne-prozesuak enpresetan:

Arantzadi Ikastolako irakasle taldean partaidetza sustatzeko prozesua.

Talleres Mitxelenan erantzunkidetasun soziala eta parte-hartzea sendotzeko prozesua.

Juntura kooperatibaren barne-egituran parte-hartzea sustatzeko prozesua.

Teila Fabrika balio eta prozesu eraldatzaileen etxea bilakatzeko prozesua.

Berria egunkarian barne-prozesu partehartzailea.

Goieneko kooperatiba erakunde bizigarriagoa bilakatzeko bidelaguntza.

Saretzea eta elkarlana:

KoopFabrikako 2022-2023 programan bidelaguntzaile.

Erantzunkidetasun sozialaren inguruko hitzaldia Ituroloko ekintzaileekin.

ERAKIDE tresna Gipuzkoako enpresetan hedatzeko elkarlan prozesua, Emun Aztiker, Elhuyar eta Isladakekin elkarlanean.

Parte-hartzea

Haur eta nerabeak:

"IrunBIXI". Irungo Haur eta Nerabeen Parte Hartze Foroaren dinamizazioa.

GazteARTEAN bekaren tribunalean parte-hartzea.

"Auzoko Ahotsak". Donostiako Ekialde Barrutiko Haurren Parte Hartze Foroa sustatzeko prozesua.

Energia komunitateak:

Itsasondon energia berriztagarrien komunitatea sortzeko partaidetzazko prozesua, Goienerekin elkarlanean.

Udalerrietan bidelaguntza:

COVID-19aren pandemian zehar herritarrek izandako bizipenen narratiba partekatua osatzeko prozesua Ordizian.

Itsasondoko Ongizate Batzordearen plangintza estrategikoa osatzeko partaidetza prozesua.

Aniztasunean oinarritutako herritar bizikidetzarentzako II. Plan Estrategikoaren diseinua Oreretan.

Eragileekin bidelaguntza:

Biziolarekin lankidetzan sustapen kooperatiboko lan-saioak UGGASAn.

Biziola sarean eragileen arteko interkooperazioa sustatzeko bidelaguntza prozesua.

Biziola sarean eragileen arteko interkooperazio estrategiak martxan jartzeko aholkularitza.

Ordizian prebentziorako sare feminista artikulatzeko bidelaguntza Kimetz elkartearekin.

Euskal herriko I. Hika Topaketaren dinamizazioa.

Egian Elikadura Burujabetzaren inguruko estrategien hausnarketa partekatua SETEM Hego Haizearekin.

Elkarteekin bidelaguntza:

Uliako Lore Baratzak elkartearen barne-antolaketari eta partaidetzari buruz hausnartzeko prozesua.

Hautzaro Ikastolako guraso komunitatearen parte-hartzerako eta ahalduntzerako formazioa.

Saretzea:


Arantzazulabeko 'Ko-sorkuntza' ekosisteman' partaidetza.

Bestelako erronkak:

Debagoienan elikadura burujabetza estrategia murrizteko saioen dinamizazioa.

GURE KABUZ BULTZATUTAKO PROIEKTUAK

Farapin sinesten dugu gu ere gizartea eraldatzeko eragile aktibo izan gaitzkeela. Hori dela eta, eskaerapeko lanak egiteaz gain, geure kabuz proiektuak sustatu ditugu ere 2023an zehar.



Barne araudi feminista

Kooperatibismo feminista lantzen hasi ginenean, sentitzen genuen Gipuzkoan kooperatibismo feminista olatu bat zegoela, baina itsaso zabalean olatu guzti horiek ezin topatu zebiltzala. Pultsio horri kasu eginez, gaia lantzeari ekin genion 2022. urtean.


Kooperatibismoaren oinarritzko tresnetako bat Barne Araudia da, kooperatibaren eguneroko bizimodua arautzen duelako. Hori dela eta, **Barne Araudi horretan ikuspegi feminista nola txertatu** arakatzten hasi gara 2023an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren sustapen eta finantzaketari esker.

Amatasunak proiektu kooperatiboetan

Artaziak eta Farapi kooperatibetako kideen arteko elkarrizketa informal batean bururatu zitzaigun **amatasunek proiektu ekintzaile kooperatiboetan duten eragina aztertzea**. Halaxe hitz egin ohi dugulako amatasuna eta lanaren inguruan: pasiloetan, atsedenetan... Horregatik, gaiari heltzea eta mahai gainean jartzea erabaki genuen.

Kooperatiba feminizatu eta gazteetan (25-40 urte) bereziki, ama bilakatzeak hankaz gora jarri dezake proiektua eta lantaldea. Amatasunak eta kooperatibismoa uztartzearen auzia lantzeko asmoz, azterketa-prozesu partehartzaile bat abiatu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren sustapen eta finantzaketari esker. Proiektua 2023. urtean hasi badugu ere, fruituak 2024. urtean jasoko ditugu.





EZAGUTZA

Formakuntzari garrantzi handia ematen diogu Farapin. Gizartea etengabe eraldatzen den heinean, **erronka sozialak ere aldatu egiten dira, eta horiei ahalik eta egokien erantzuteko prest egotea garrantzitsua da.** Horregatik, Farapin talde-formakuntzak egiten ditugu, taldearen ezagutzak eguneratzeko, eta banakako formakuntzak ere egiten ditugu, norbera-ren interés eta gaitasunen arabera.

2023. urtean, bi trebakuntza egin ditugu taldean: alde batetik, Farapin begirada interseksionala txertatzeko prozesua eta, bestetik, euskarazko erredakzioa hobetzeko ikastaroa.

Halaber, guk besteengandik ikasten dugun moduan, uste dugu guk ere badugula zer kontatu. Ezagutza sortzaile izateko bokazioa ere badugu Farapin. Hori dela eta, lehenengo aldiz, 2023an ikastaro bat eskaini genuen Udako Euskal Unibertsitatean, emakumeek euskal kooperatibismoari egin dioten ekarpenaren inguruan.

Amaitzeko, ezagutzak partekatzeko espazioetan ere parte hartu dugu. Besteak beste, gure barne-eredua erakutsi dugu eta doktoretza tesi batean ikergai izan gara.

‘Emakumeak euskal kooperatibismoan’

Uztailen, Udako Euskal Unibertsitatearen 51. edizioaren baitan, ‘Emakumeak euskal kooperatibismoan’ ikastaroa antolatu genuen Eibarren, Lankirekin elkarlanean. Helburua ez zen kooperatibismoaren historiari buruzko katedra bat ematea, **emakume kooperatibakideen bizipenak entzutea eta kooperatibismoari egin dioten ekarpena** aitortzea baizik.

Feminismoa eta kooperatibismoa gizartea eraldatzeko tresna indartsuak dira, baina ez dira asko elkarriketan jarri. Biek bultzatu nahi dute berdintasuna, justizia soziala eta elkarlana, horregatik da garrantzitsua elkarren artean zubiak eraikitzea; bakoitza bere esparrutik, baina elkarrekin.

Hamarkadaz hamarkada antolatu genuen ikastaroa. Aitzindarien arteko solasaldiarekin hasi ginen, 60 eta 80 hamarkaden artean kooperatibista izan ziren emakumeekin. Jarraian, 1990 eta 2000 urteen artean kooperatibetan lan egin zuten emakumeek haien esperientzia aurkeztu zuten. Amaitzeko, azken urteotan kooperatibismoan murgildu diren emakumeak izan genituen elkarrekin hizketan.



Begirada interseksionala

Bidez bide elkartearen bidelaguntzarekin feminismoak, migrazioak eta zaintza-kate globalak landu ditugu, besteak beste, gure eguneroko praktikara ekarri ahal izateko. Farapiko lan-talde osorako saio bateratuak egiteaz gain, lan-lerro bakoitzak saio bereziak izan ditu Bidez biderekin, hausnarketak proiektu zehatzetan lurreratu ahal izateko.

Barne-prozesu hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren sustapen eta finantzazioari esker egin dugu.

Euskara

Euskal hiztunak bagara ere, 2023. urtean euskara klaseak egin ditugu AEK-rekin. Gure idazketa-ohiturak aztertu eta hobetu nahi genituen. Trebakuntza hau, gure gaitasun profesionalak hobetzeko egiteaz gain, euskarari diogun errespetuagatik egin dugu, zaindu beharreko altxorra delako.

Benetan harritu gaitu zeinen barneratuta ditugun 'erdarakadak' (guk eta, oro har, euskal hiztunok).



EZAGUTZA PARTEKATUAK

VIII. Ekonomia Feminista kongresua

Martxoanartzelona bidaiatu genuen VIII. Ekonomia Feminista Kongresuan parte hartzeko. Gure lan-ereduaren inguruko posterra aurkeztu genuen bertan. Ekonomia feminista modu praktikoan nola aplikatzen dugun azaldu genuen bertan, eta erabiltzen ditugun tresna eta baliabideak partekatu genituen.

Gainera, beste eragileak ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta elkarren arteko konpainiaz gozatzeko aukera paregabea izan zen.

[Eskuratu posterra](#)

Doktoretza-tesi batean aztergai

Elkarrekiko mendekotasuna eta bitzta osoko zaintza lantzen duten ekimen komunitarioak aztertzen ari da Isabel de Blas Buruaga soziologo eta EHUko irakaslea bere doktoretza-tesian. Horretarako, hiru kasu aztertu ditu eta horietako bat Farapi izan da.


Ariketa hori egiteak guri ere balio izan digu ordura arte egindako lana berrikusteko eta aitortzeko.




DIRU-SARRERAK

2023. urteko diru-sarrerak osotara: **476.359,64 €**

Nola finantzatzen ditugu proiektuak?



Bezero motak:



GASTUAK

2023. urteko gastuak osotara: **473.932,76 €**

Zertan inbertitu dugu?



* Erizainak Saharan elkarteari dohaintza

2023 urteko IPDK Erizainak Saharan elkarteari dohaintza egiteko erabili dugu. Elkarte horrek errefuxiatu sahararren kanpamenduetan lehen arreta lanak egiten ditu, osasun zentroetan eta etxez etxe. Halaber, bertako herritarrentzako eta osasun langileentzako tailerrak antolatzen ditu.


Ezagutu

Soldata-taula:

Urteko soldata (2023)

Kooperatibakide diren langileak	33.860,04 €
Kooperatibakide ez diren langileak (>1 urte)	32.583,48 €
Kooperatibakide ez diren langileak (<1 urte)	30.517,80 €

Urte amaieran ezer elkarbanatzeko egotekotan, langile guztion artean partekatzen ditugu, kooperatibakide izan ala ez.



HORNITZAILEAK

Urteak daramatzagu koherentzia ariketa egiten eta pixkanaka gure hornitzaileak aldatzen.

Hauek dira, besteak beste, aldaketak egiteko erabili ditugun irizpideetako batzuk: ekonomia sozial eraldatzaileko (ESE) enpresa izatea, tokikoa izatea, finantza etikoak bultzatzea edota zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Ondorengo taulan orain arte egin dugun trantsizioa islatu dugu:

	LEHEN	ORAIN
Ostatatzea eta e-posta	Telefónica / Acens	IZT Koop <input type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Inprimagailu zerbitzuak	RICOH	MAKELSA <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Telefonia	Vodafone	Osinaga <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Janari erosketak	Eroski	Labore <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Mailegua	Santander	Koop57 <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Bestelako erosketak	Denetariko denda	Tokiko dendak <input checked="" type="checkbox"/>
Elektrizitatea	Iberdrola	Goiener <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Aseguru etxea	Catalana Occidente	Nortlan <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Garbiketa zerbitzuak	Easo Limpiezas <input checked="" type="checkbox"/>	Maitelan <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>
Mutua	Prevencilan / Preving	Segurlan <input checked="" type="checkbox"/> <input checked="" type="checkbox"/>

ESE
 Finantza etikoak
 Tokikoa
 Euskaraz

Kriterio horiek betetzetik haratago, eragiteko jarrera proaktiboa dugu Farapin; kontua ez da soilik laukiak markatzea. Urtetik urtera, elkarrekin erantzunkidetasun sozialaren balioak sustatzeko erronkan gabilza.

Aldi berean, hornitzaileekin harremantzeko moduari ere garrantzia ematen diogu. Bezeroekin egiten dugun bezalaxe, gertutasunetik lan egitea gustuko dugu, bezero-hornitzaile harreman tradizionalak irauliz.

Bide luzea egin dugu, baina oraindik ere eutsi beharreko erronkak ditugu.



SAREAK

Saretzea ezinbestekoa dela uste dugu, inguru sozialarekin kohesioa eta konexioa izateko.

Gizartea eraldatu nahi badugu, ezin dugu bakarrik egin. Horregatik, beste elkarte, enpresa eta eragileekin elkarlanean aritzen gara eta partekatze-espazioak sortzearen alde egiten dugu.

Elkar sostengatzen dugun proiektuak gara. Horregatik, 2023. urtean hainbat berme mankomunatuetan parte hartu dugu beste proiektuak laguntzeko, guri haiek lagundu diguten moduan.

Gaur egun, hainbat espazio kolektibotan parte hartzen dugu.

ZEIN SAREETAN GAUDE?

Olatukoop

Ekonomia sozial eraldatzailea indartzeko eragileen sareko **partaide aktiboak** gara.

Larrutik

Interkooperazio feminista sareko **kideak** gara.

Batura mapa

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen Euskal Herriko **mapan** gaude.

Koop57

Zerbitzu finantzario etikoak eta solidarioak eskaintzen dituen kooperatiba honetan **bazkide** gara.

Cure hornitzaile izateaz gain, **Maitelan** garbiketa kooperatibaren eta **Labore** supermerkatu kooperatiboaren **bazkide** gara.

KoopFabrika

Ekintzaitza sozial kooperatiboan oinarrituz, proiektu profesional eta ekimen sozio-ekonomikoak martxan jartzen laguntzeko eskola honetan **bidelagun** gara.


Biziola sarea

Goierriko herritarrak, ekonomia sozial eraldatzaileko eragileak eta bestelako erakundeak saretu nahi dituen irabazi asmorik gabeko eta gizarte ekimeneko kooperatiba honen **bazkide** gara.

Ko-sorkuntza ekosistema

Arantzazulabek sustatutako lankidetzaren egiturako kide gara. Bertako **esperimentazio lan-taldean** parte hartzen dugu.






ERRONKAK

Farapiren eraldaketa prozesuak bost urte beteko ditu 2024an, eta **hausnarketa estrategiko bati helduko diogu**, egin dugun ibilbidea analizatzeko eta hurrengo urteetako ikusmira elkarrekin lantzeko.

Koherentziaren bila ari gara etengabe, eta horrek erronkazerrenda amaigabea izatea dakar. Deseraikitzen dugun guztia berreraiki behar dugu ondoren. Hori dela eta, hausnarketa estrategiko horretan lehentasunak zehaztuko ditugu, eta etorkizuneko Farapi irudikatuko dugu.

Farapiren izaera zurrun eta aldakorrari eutsi nahi diogula argi dugu. Momentuko erronka sozialei helduko dion kooperatiba izan nahi dugu eta, aldi berean, oinarrizko balio eta funts batzuk defendatuko dituen.

Ilusio handiz helduko diogu erronka berri horri, 2019an eraldatzeko erronkari heldu genion bezala. Bada, datorren urteko gardentasun txostenean emango dizuegu hausnarketa horren lehenengo urratsen berri.



**Eskerrik asko 2023an gurekin
bidea egin duzuen guztiei.**

Gure lanaren berri izan nahi baduzu,
sar zaitetz gure webgunean
eta jarrai gaitzazu sare sozialetan:



@farapikoop

www.farapi.com